



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSA-OHARRA

## **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK 90EKO HAMARKADAKO EUREN ARTE-BILDUMEA ERAKUTSI DABE**

- **Bizkaiko Batzar Nagusiek lehenengoz erakutsi dabe euren erakusketa-aretoan (Hurtado de Amezaga, 6. Bilbo), 1990eko hamarkadan eskuratutako bilduma propioaren pintzelkada bat, Txus Meléndez, Juan Ugalde, Andoni Euba, Jorge Rubio, Fermin Moreno, Luis Candaudap, Dora Salazar, Asunción Goikoetxea, Abigail Lazcoz, Roberto Ruiz Ortega, José Zugasti, Carmen Olabarri, Begoña Zubero, Patricia López eta Eduardo Sorrouvilleren lanakaz.**
- **ONCE EUSKADIK bere laguntzea emon dau, “90eko hamarkadako artea. Sasaien arteko oihartzuna” erakusketea pertsona itsuen beharretara egokituta egon daiten.**

(Bilbon, 2021eko zemendiaren 15ean). Bizkaiko Batzar Nagusiek azken berrogei urteetan eskuratutako bilduma propioaren altxor artistikoak atera ditue barriro herritarren gozamenerako. Bagilean 80ko hamarkadako artea izan bazan protagonistea, oraingoan hurrengo hamarkadako margolanak eta eskulturak dagoz ikusgai, urtarrilaren 28ra arte, administrazio-egoitzako erakusketa-aretoan (Hurtado de Amezaga, 6 – Beheko solairua. Bilbo). **“90eko hamarkadako artea. Sasaien arteko oihartzuna”** erakusketak egile ospetsuen eta EHUKo Arte Ederren Fakultatetik urten barriak ziran artisten lanak biltzen ditu.

Batzar Nagusietako Erakusketa Aretoak beste horrenbeste artistaren 15 lan biltzen ditu, gehienak 60ko eta 70eko hamarkadetan jaiotakoak. **Txus Melendez, Juan Ugalde, Andoni Euba, Jorge Rubio, Fermin Moreno, Luis Candaudap, Dora Salazar, Asuncion Goikoetxea, Abigail Lazcoz, Roberto Ruiz Ortega, Jose Zugasti, Carmen Olabarri, Begoña Zubero, Patricia Lopez eta Eduardo Sorrouville** dira.

Erakusketa hau 90eko hamarkadara egindako bidaia bat da. Hamarkada horretan, hainbat gertakari sozial, politiko eta teknologikok ezarritako mugetatik urtetako eta sortzeko modu barriak ekarri ebezan, eta horreen “oihartzunek” gaur egun be jarraitzen dabe. 1989an Berlingo harresia jausi osteko testuinguru soziopolitiko barria, konputagailu personalen hedapen masiboak eta interneten garapenak ekarri eben aurrerapen teknologikoak, eta XX. mendeko arte bisualen tradizioa bera, artistaren errealidadeaz eta esperientziaz bustitako erakusketa honetako lanetan islatzen dira.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Hamarkada hau gaur egungoa balitz moduan sentitzen da, eta era berean, antzinako historia balitz moduan. “Trantsizino kultural, sozial eta teknologiko handiko garaia islatzen dau. Garai horretan arteak, adierazpide barrien bila ordura arte ezarritako mugetatik aterateko joera eukan”, azaldu dau Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak, Andoni Euba, Carmen Olabbarri, Luis Candaudap, Roberto Ruiz Ortega, Jesus Melendez eta Eduardo Sourrouille artistak be egon diran erakusketaren aurkezpen ekitaldian.

Bizkaiko Batzar Nagusien arte-bilduma ia 200 lanek osatzen dabe gaur egun, batzuk eskuratuak eta beste batzuk dohaintzan jasoak. Hogeitabat 90eko hamarkada horretakoak dira. Altxor ezkutu hori Anton Aurre demokrazia garaiko Batzar Nagusietako lehenengo lehendakariak izan eban bisioari esker bildu da. Orain pasetan dan moduan, garai haretan Bizkaiko Legebatzarrerako artea eskuratzeko programa jarraitu bat martxan jaratearen aldeko apustua egin zan, eta artista “hasibarriak” kontuan hartu ziran, gaur egun UPV/EHUko Arte Ederren Fakultadeagaz egiten dan moduan. Hitzarmen horren helburua Bizkaian trebatutako artisten harrobi gaztearen lana erakustea da.

“90eko hamarkadako artea. Sasoiaren arteko oihartzuna” erakusketea, Bizkaiko herritarrei erakunde horrek artean eta kulturaren egindako inbertsinoa ezagutarazo gura deuten, eta Euskal Unibersidade Publikoari hamarkada haretako talentua sortzeko leku moduan balioa emon gura deutan erakusketa-moltso baten hirugarrena da. “Lan ikusgarriak dira, bai tamainarengaitik, bai guztiek daukien indarrarengaitik”, esan dau Otadui, eta “gure altxor guztiak” erakusten jarraitzeko konpromisoa hartu dau, Bizkaiko herritarrek goza daiezan.

## ERAKUSKETA INKLUSIBOA

90eko hamarkadari buruzko erakusketak ONCEren laguntza izan dau oraingoan. Itsuen erabateko integrazioaren eta inklusioaren aldeko apustua egiten dauen erakundeak bere laguntzea emon dau, erakusketaren informazio-zirkuitua braille formatuan egon daiten, kolektibo horrek kulturarako daukan sarbidea errazteko. Erakusketaren aurkezpenean, Juan Carlos Andueza ONCE Euskadiko lurralde ordezkaria eta Rafael Ledesma presidentea izan dira, beste dozena bat lagunegaz batera.

“Lankidetzaren bidez adierazo gura dogu garrantzitsua dala bizitzaren alderdi guztiak itsuentzat eskuragarri izatea, kulturarako sarbidea barru, eta, kasu honetan, artelanetarako sarbidea. Beharrezko egokitzapenakaz kultura, informazioa, hezkuntza edo enpleoa eskuratzeko gure erakundearen helburu gorena bete ahal



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

izatea esan gura dau, hau da, gizarte guztiz inklusibo batean modu autonomoan bizitzea”, esan dau Anduezak. “Horretarako, erakundeek, Bizkaiko Batzar Nagusi honeen kasuan bezala, holango ekimenakaz bat egitea behar dogu, lurraldeko generako herritarrei emoten jakezan aukerak geuri be emonez”, gaineratu dau.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA EXPONE SU COLECCIÓN DE ARTE DE LA DÉCADA DE LOS 90

- El Parlamento de Bizkaia exhibe, por primera vez, en su sala de exposiciones (Hurtado de Amezaga, 6. Bilbao), una pincelada de la colección propia adquirida en la década de los 90, con obras de Txus Meléndez, Juan Ugalde, Andoni Euba, Jorge Rubio, Fermín Moreno, Luis Candaudap, Dora Salazar, Asunción Goikoetxea, Abigail Lazcoz, Roberto Ruiz Ortega, José Zugasti, Carmen Olabarri, Begoña Zubero, Patricia López y Eduardo Sorrouville.
- ONCE EUSKADI ha colaborado para que la muestra “El Arte de los 90. Eco entre tiempos” se adapte a las necesidades de las personas ciegas.

(Bilbao, a 15 de noviembre de 2021). Las Juntas Generales de Bizkaia vuelven a sacar para el disfrute de la ciudadanía los tesoros artísticos de su colección propia, adquirida durante los últimos cuarenta años. Si en junio fue el arte de los 80 el protagonista, en esta ocasión la sala de Exposiciones de su sede administrativa (Hurtado de Amezaga, 6 – planta baja. Bilbao) acoge hasta el 28 de enero cuadros y esculturas de la década posterior. La muestra “**El Arte de los 90. Eco entre tiempos**” acoge obras de autores consagrados y de artistas que acababan de salir de la Facultad de Bellas Artes de la EHU/UPV.

La sala de Exposiciones de la Cámara reúne 15 trabajos de otros tantos artistas, la mayoría de la generación nacida en los años 60 y 70. Son **Txus Meléndez, Juan Ugalde, Andoni Euba, Jorge Rubio, Fermín Moreno, Luis Candaudap, Dora Salazar, Asunción Goikoetxea, Abigail Lazcoz, Roberto Ruiz Ortega, José Zugasti, Carmen Olabarri, Begoña Zubero, Patricia López y Eduardo Sorrouville.**

Esta exposición es un viaje a la década de los 90, una década en donde diferentes acontecimientos sociales, políticos y tecnológicos, trajeron nuevas formas de crear y de salir de los límites establecidos, cuyos “ecos” se mantienen a día de hoy. El nuevo contexto sociopolítico tras la caída del muro de Berlín en 1989, los adelantos tecnológicos con la difusión masiva de las computadoras personales y el desarrollo de internet, y la propia tradición de las artes visuales en el siglo XX, se ven reflejados en las obras de esta muestra, bañada de realidad y de la experiencia del artista.

Es una década que se siente como si fuera actual, y como si fuera historia antigua al



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

mismo tiempo. “Refleja una época de gran transición cultural, social, tecnológica, con una tendencia de las artes a salirse de los límites establecidos hasta el momento en busca de nuevas formas de expresión”, ha explicado la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, en el acto de presentación de la muestra al que han acudido los artistas Andoni Euba, Carmen Olabari, Luis Candaudap, Jesús Meléndez, Roberto Ruiz Ortega y Eduardo Sourrouille.

La colección de arte de la Cámara vizcaína está compuesta en la actualidad por casi 200 obras, unas adquiridas y otras donadas. Una veintena están fechadas en esa década de los años 90. Este tesoro oculto se ha recopilado gracias a la visión que tuvo el primer presidente de la cámara vizcaína en la etapa democrática, Anton Aurre. Como ocurre ahora, en aquella época se apostó por poner en marcha un programa constante de adquisición de arte destinado al Parlamento de Bizkaia y se tuvo en cuenta a artistas “incipientes”, al igual que se hace hoy por medio de un acuerdo de colaboración con la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU que tiene como objetivo mostrar el trabajo de la joven cantera de artistas formados en Bizkaia.

“Arte de los 90. Eco entre tiempos” es la tercera de un conjunto de exposiciones que pretenden dar a conocer a la ciudadanía vizcaína la inversión en arte y cultura de esta institución, y poner en valor a la Universidad Pública Vasca como lugar de generación de talento de aquella década. Un muestra con “obras espectaculares, tanto por su tamaño como por la fuerza que tienen todas ellas”, ha dicho Otadui, quien se comprometido a seguir mostrando “todos nuestros tesoros” para que sean disfrutados por la ciudadanía vizcaína.

## MUESTRA INCLUSIVA

La exposición sobre los 90 ha contado en esta ocasión con la colaboración de la ONCE. La organización que apuesta por la plena integración e inclusión de las personas ciegas, ha participado en la elaboración del circuito informativo de la muestra en formato braille para favorecer el acceso a la cultura de este colectivo. En la presentación de la muestra han estado el delegado territorial de ONCE Euskadi, Juan Carlos Andueza, y su presidente Rafael Ledesma, quienes han venido acompañados por una docena de personas.

“Con esta colaboración deseamos poner de manifiesto la importancia de que todas las facetas de la vida resulten accesibles para las personas ciegas, incluyendo el acceso a la cultura y en este caso concreto a las obras de arte. Acceder a la cultura, a la información, a la educación o al empleo con las adaptaciones necesarias implica poder cumplir con el máximo objetivo de nuestra Organización, que no es otra que vivir de manera autónoma en una sociedad totalmente inclusiva”, ha dicho Andueza.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

“Y para ello, necesitamos que las instituciones, como es el caso de estas Juntas Generales de Bizkaia, se sumen con iniciativas como ésta, dándonos también oportunidades como al resto de la ciudadanía del territorio”, ha añadido.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## *FITXA TEKNIKOA*

**90eEO HAMARKADAKO ARTEA. SASOIEN ARTEKO OIHARTZUNA**  
Bizkaiko Batzar Nagusien bilduma.

## *FICHA TÉCNICA*

**ARTE DE LOS 90. ECO ENTRE TIEMPOS**  
Colección de las Juntas Generales de Bizkaia

---

## ARTISTAS Y TÍTULO DE LA OBRA

- Txus Meléndez. Mintza gaitezen langilegoaren omenez.
- Juan Ugalde. Equilibrios elípticos.
- Andoni Euba. Desarrollo de una verdadera irrealidad.
- Jorge Rubio. Molesto.
- Fermín Moreno. Más de lo mismo.
- Luis Candaudap. San Jorge y el dragón.
- Dora Salazar. Gastrología o la última cena.
- Asunción Goikoetxea. Tigre-Nuit (Tríptico). (ESCULTURA)
- Abigail Lazcoz. Nevermore.
- Roberto Ruiz Ortega. S/T.
- José Zugasti, El peso de la materia. (ESCULTURA)
- Carmen Olabarri. Las Flores del bien.
- Begoña Zubero, S/T.
- Patricia López La respuesta es sí.
- Eduardo Sorrouville. A cuatro patas (si dices algo).

## **Bizkaiko Batzar Nagusien Erakusketa Aretoa**

Sala de Exposiciones de las Juntas Generales de Bizkaia  
Hurtado de Amezaga 6. 48008, Bilbao.  
2021.11.15 – 2021.01.28